



Usurbilgo Udala

2024/03/26

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO MARTXOAREN 26AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Iratxe Begiristain Otegi eta Xabat Beloki Segurola.

Idazkariordea: Olatz de Miguel Arnaiz.

Ez dira bertaratu: Ainhoa Arrozpide Landa eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

1.- 2024KO OTSAILAREN 27KO TOKIKO GOBERNU BATZARREKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2024ko otsailaren 27ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- 2023KO NORGEHIAGOKA ERREGIMENENKOKAK EZ DIREN KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZEN BEHIN BETIKO EBAZPENA (2023KINE0008).

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 31ko datan, 2023. urterako norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2023ko otsailaren 17an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Epe barruan aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, Dirulaguntzen Batzorde Orokorak dirulaguntzen ebazpen proposamena egin zuen kirol teknikariaren 2024ko abenduaren 21eko txostena jarraiki. Hala ere, 2023KINE0008 espedientearen egoera hobeto aztertzeke txostena eskatu zien zegoen sailei. Beraz, momentuz espediente hori ebazteke gelditzea proposatu zuen.

Kirol sailak gizarte zerbitzu eta kontuhartzaitzarekin espedientea sakonago aztertu zuen eta interesdunari zordun izaera kentzeko aukera eman zitzaion, zorra zatikatuz.

Errenta teknikariak txostena egin du 2024/02/06an, eta kirol teknikariak 2024/02/09an.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorak, aipaturiko txostenak kontutan hartuta, 2024ko otsailaren 15eko bilkuran ebazpen proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.



Usurbilgo Udala

2024/03/26

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2023/02/01)
- Dirulaguntzaren oinarriak (GAO, 2023/02/17)
- 2024/02/06 errenta teknikariaren txostena.
- 2024/02/09 kirol teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehena: Eskolaz kanpoko kirol jardueretarako dirulaguntza-zenbateko hauek baimentzea, xedatzea eta obligatzea: 1.4300.481.341.00.10 2023

| Dirulaguntza jasoko duena | Onartutako zenbatekoa | Izendatutako dirulaguntza |
|---------------------------|-----------------------|---------------------------|
| Udarregi ikastola | 390,00€ | 324,00€ |
| Guztira | 390,00€ | 324,00€ |

Bigarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena: Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea ordainketak egiteko.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:44ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariordeak, ziurtatuz.